

## “NIGERREN, MUNDU GUZTIAN BEZALA, EMAKUMEEN ERABAKIA” ERAKUSKETA

Nigerreko emakumeek eta neskek jasaten dituzten indarkeriak ikusarazi nahi ditu “Nigerren, mundu guztian bezala, Emakumeen Erabakia” erakusketak, baina baita beren borrokaren bidez gidatzen dituzten erresistentziak ere. Erakusketa hau Bakerako Lankidetz Batzarrea / Asamblea de Cooperación por la Paz (BLB/ACPP) Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatu du Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz “Lidergo feministak eta inklusiboak eraikiz gizarte-eraldaketarako, ikuspegi lokal-global batetik” izenburu bereko proiektuaren barne dagoelarik.

Ruido Photo elkarteak ekoitzi du erakusketa BLB/ACPP-rekin lankidetzan. Ruido Photo fotokazetaritzan lan egiten duen erakundea da. Gizarte-arazoak eta giza eskubideen urraketak ditu ardatz, eta tresna bisualak erabilia kontzientziazioaren bidez errealitateak eraldatzea du helburu. Ruido Photo elkarte 2021eko abuztuan Nigerrera joan zen erakusketa osatzen duten argazkiak eta testigantzak jasotzera.

Nigerreko genero-indarkeria gizarte-sistema patriarkalean oinarritzen da. Gizarte-sistema patriarkalaren eragina lege-, zuzenbide- eta epai-eremuetara zabaldu da, eta, hartara, emakumeen zein nesken eskubideak arriskuan jartzen ditu. Sistema honek, gizonak hierarkia sozialaren gorenean kokatzen ditu, emakumeak etxeetara mugatuz. Erabat diskriminatzailea den Statu quo hori zalantzan jartzeko eta aldatzeko, ezinbestekoak dira politikarien borondatea eta pentsaera aldatzea; horiek ezean, ez da bermatuko emakumeen eta nesken eskubideen betetzea.

Arlo askotarikoetan (kazetaritza, pintura, politika, medikuntza...) erreferente bilakatu diren 6 nigertar emakumeren istorioak eta testigantzak jasotzen ditu erakusketa honek. Beren lanarekin eta gizarteari egindako ekarpenekin, aztarna nabarmena utzi dute Nigerreko berdintasunaren eta emakumeen eta neskatilen eskubideen errespetuaren alde.



BLB/ACPP tresna eta pertsonen elkargunea da, eta duintasunean, justizian eta aukera-berdintasunean oinarritutako munduan bizitzea du helburu. Joko-arauak ez dira neutroak, hortaz, honako hauek baliatzen ditugu arauok aldatzeko: nazioarteko lankidetzaren, eskoletan ekintzak, auzoetako eta hirietako esku-hartze sozialak, eragin politikoa eta herritarren sentsibilizazioa. Ahalegina eta lana batzen ditugu gizarte berdinezaleagoa lortzeko eta pertsona guztiek bizitza duina izateko.



**Gehiago jakin nahi baduzu:**

<https://www.acpp.com>

Twitter: @BlbEuskadi

Facebook: @ACPPEuskadi

Instagram: @acppeuskadi

**Harremana:**

660103247

blb@acpp.com

**ESKERRIK ASKO!**